

Arrantza, ehiza, hitzaldiak eta afaria Txantxangorriko 50. urteurrenean

■ Apirilaren 22an plater tiraketarekin hasi eta hilaren 30ean bukatuko dute urteurreneko afariarekin, plater artean ■ Bazkideak ofizinatik pasa, afarirako izena emateko.



Bi bazkide afalosteko purua erretzen, lasai.

TXANTXANGORRI elkarteak sortu zela 50 urte dira aurretan eta horren bueltan ekintza asko antolatu dituzte datorren aste osorako. Ehiza eta arrantza inguruko ekintzak dira gehienak, eta nola ez urteurreneko afaria, aurtengoa bukatzeko.

CDH-TIK SORTUA

1946 urtean, Club Deportivo Hernani barruan ehiza eta arrantza saila sortu zuten, lehendakari Jose Adarraga

zela. 1947an egin zituzten lehen plater tiraketa saioak.

1951ean Gobernu zibilak Txantxangorri elkarteak sortzeko baimena eman zuen, eta elkarteak reglamentu berriak onartu zituzten.

LOKALEZ LOKAL

Elkano leian (*Jaione konjelatuak* dagoen lekuan) alokatu zuten lehen lokala 1957an. 1959an Oarso leian hartu zuten bestea Elkanokoa utzita, baina,

elkarte barruko tirabirak medio, talde batek Elur Txori elkarteak sortu zuen bertan. 1968 arte lokalik gabe egon zen Txantxangorri, eta orduan hartu zuten oraingo elkarte berria, Urbieta kalean, 1.100.000 ptan. Ordaintzeko dirua jarri zutenak bazkide babesle egin ziren. Besteak, berriz, kirol bazkide.

EMAKUMEEN SARRERA

Txantxangorri elkarteak orain bi urte (1999an) onartu zuten emakumeak sartzea. Eztabaidak, ordea, 1969an hasi ziren, eta orduko hartan sartzen ez uztea erabaki zuten. Gaur egun sartu bai, baina, ezin dira bazkide izan. □

EGITARAUA

■ **Apirilak 22:** Plater Tiraketa Santa Barbaran. Gipuzkoa eta elkarte mailakoa. Izen ematea 11:00etatik 17:00etara. Sozioek 2.000 pta.

■ **Apirilak 27:** Arrantza eta ehizari buruzko hitzaldia. Hitzlariak: T.Vko *Saison* programako zuzendaria eta Don Julio kazetari aditua. Lehengo ehiza eta arrantza moduak ere azalduko dituzte zenbait afizionatuk 20:00etan elkartean.

■ **Apirilak 28:** III. Itxasoko arrantza lehiaketa. Donostian Saguesetik Paseo berri-raino. 16:00etan hasi eta 20:00etan bukatuko da.

■ **Apirilak 29:** Tiro pitxoia: 11:00etatik 13:30etara eta 15:00etatik 18:00etara Jauregi baserriko zelaietan. Sozioentzat 2.000 pta.

Amurrai arrantza lehiaketa: Ekartekoentzat. goizeko 08:30etan hasiko da Urumea goikaldean. Gaztetxonetzat Karabelen amurraiak askatuko dira 09:00etan.

Uso mezulariak: 11:00etatik 14:00etara jarriko dituzte elkarteak jardinean.


Arrantza lehiaketa arratoi isatsa modalidadean: 15:00etatik 19:00etara. Guztientzat zabalik.

■ **Apirilak 29:** Urteurreneko afaria, 20:30etan. Izen ematea hilaren 23 baino lehen.

■ ERREMONTA - I. MASTERRA

Ezkurra-Urretabizkaia II Zeberio II-Iriarte gaur Masterra hasteko

■ Momentuko lau bikote onenen arteko txapelketa da.



Erremonterik onena ikusi ahal izango da Galarretan.

GAUR emango zaio hasiera Erremonteko lehenengo Masterrari. Txapelketa berria da hau. Lehenengo aldiz, gaur egun osatu daitezken lau bikote indartsuenek neurtuko dituzte indarrak. Bikoteak honako hauek dira: Ezkurra-Urretabizkaia II, Altuna I-Eizagirre, Zeberio II-Iriarte eta Altuna II-Lizaso.

BI FRONTOIETAN

Astero erremonteko jaialdiak jokatzen diren bi frontoietan jokatuko da, Galarretan eta Huarteko Euskalen. Bikote guztiak elkarren kontra jokatuko dute, joan-etorriko ligaskan.

Bi lehenengoek finala jokatuko dute, bi partidutara hau ere, bat Galarretan eta bestea Euskalen. Hirugarren partidu bat beharko balitz, Hernanin jokatuko litzateke.

GAUR LEHENENGO PARTIDUA

Masterrari hasiera emateko partidu bikaina jarri dute. Ezkurra-Urretabizkaia II ak Zeberio II-Iriarteren aurka jokatuko dute. Jaialdia arratsaldeko 16:00etan hasiko da, eta Masterrari dago-kion partidua jaialdiko bigarre-na izango da. □

■ ERRUGBIA -ERRUGBI ZAZPI-

Selekzioko hautatzailea dator gaur Landarera

■ Errugbi 7aren inguruko azalpenak emango ditu 19:30etan, Fran Puentesek ■ Larunbatean Ejea de Caballerosera dihoaz hernaniarrak torneo bat jokatzeraz.



Galarreta gaina z/g - HERNANI

Gaur arratsaldeko 16:00etatik aurrera erremonte jaialdia:

- ⇒ 1. partidua **ZEBERIO III-URKO / ITURRALDE-ETXEBERRIA II**
- ⇒ 2. partidua **Masterra: EZKURRA- URRETABIZKAIA II / ZEBERIO II-IRIARTE**
- ⇒ 3. partidua **ALTUNA I-AIZPURU / ELIZALDE-LIZASO**
- ⇒ 4. partidua **AGIRRESAROB-EKIZA / BEREZIARTUA-IMAZ**

SAN ANTONIO JAIK EREÑOTZUN

Pala txapelketa larunbatean hasiko da Ugaldetxon

■ Oraingo, mutilen pala txapelketa hasiko da ■ Mutilen eskuzko txapelketa eta nesken pala txapelketa geroago izango dira ■ Asteroko kartelera *Irrintzi* tabernan.



Parte hartzaile batzuk hasi dira dagoeneko txapelketarako preparatzen, ez alperrik.

SAN Antonioak inguratu ahala auzoko eta ingurukoen- tzeke pelota txapelketak has- ten dira Ereñotzun. Mutiletan 20 bikote eman dute izena palan eta zortzik esku pelota- rako. Neskak palan bakarrik apuntatu dira; 8 bikote.

LAU TALDETAN

Bikote gehiena izaki, orain hasiko dena mutilen pala txapelketa da. Hogei bikoteak lau taldetan banatu dituzte; larunbatero talde bakoitzeko bi partidu jokatu dira. Aurren bigarrenak klasifikatu dira final-laurdenetarako.

FINALAK

UGALDETXOKO FESTAN
San Antonio bigarrenez (ekai-

naren 14ean) Ugaldetxon izaten da festa. Pelotako final guztiak orduan jokatu dira, arratsaldean.

LAUGARREN URTEA

Pelota txapelketa laugarrenegoz egingo da aurren. Iaz *Iturbe-Tutuk* irabazi zuten eskuz; palaz mutiletan *Gaxi-Bermexek* eta nesketan *Marimar-Jonek*. Lehenago futbol txapelketa antolatzen zuten, baina, jaleoa eta saltsa besterik ez omen zen izaten. Ugaldetxoko festara, berriz, kanpotik ekartzen zituzten pelotariak. Azken lau urteotan oso giro ona lortu dute Ugaldetxon, bertako pelotariekin, bai finalaren egunean eta baita beste partiduetan ere. □

LARUNBATEKO PARTIDUAK

Ordua	Bikoteak
12:00etan	Imanol-Jon Mari Aitzol Aitor
12:30etan	Arkaitz-Unai Iraola-Gorka
16:00etan	Oskar-Mikel Jexux-Urbi
16:30etan	Joxemi-Redbull Iñaki-Xabier
17:00etan	Iñigo-Joan Pablo Basurde-Manterola
17:30etan	Moska-Igor Julen-Inaxio
18:00etan	Jose-Gorka Ibon-Aitor
18:30etan	Mintxo-Latxe Axier-Bermejo

JUBILATU ETXEA

Apirilaren 28an, larunbata, Castejonera eskursioa

■ Zozketa datorren astelehenean (apirilak 23) egingo da Jubilatuen Etxean, arratsaldeko 17:00etan.

HERNANIKO Jubilatuek eskursioa antolatu du Nafarroako Erriberara. Egun osorako joango dira datorren larunbata ez, hurrengoan. Bidaiaren prezioa 2.300 pta-koa da.

TEKNOLOGIA MUSEO-RA MAIATZEAN

Maiatzaren 10ean Miramongo teknologia museoa ikustera joango dira arratsalde pasa, Jubilatuek etxeak. Aurreko aldian zenbait joan ezinda gel-

ditu ziren eta berriz ere antolatzeari pentsatu dute. Irteera 14:45etan izango da Atsegindegitik eta 17:30etarako bueltatu dira etxera. Izena emateko Jubilatuek etxeak bulegotik pasa. Prezioa: 1.000 pta. □

■ MUSA

Peña Otañon finala gaur: Tejedor-Miguel/Eugenio-Angel

■ Aralar Tabernan kanporaketa berezia jokatu da gaur ■ Ur Mia Elkartean final-laurdenetan dira.



Peña Otañon kanporaketako partida batean, serio arraio.

HERRIKO musulariak jo eta su dabilta hainbat txapelketetan, kartekin duten abilezia azaldu nahiean.

*Ibon-Aritz /Arretxe-Xebastian
Niko-Igor /Joxeba-Arantzazu
Ramon-Mikel /Leonet-Leonet
Joxe-Aitor / Joxeba-Inaxio*

PEÑA OTAÑON FINALA

Gaur iluntzean jokatu dira Peña Otaño Elkartean mus txapelketako finala eta hirugarren eta laugarren posturako partidak. Finala:

Tejedor-Miguel /Eugenio-Angel
Hirugarren eta laugarren postua:

Juan-Luis / Pello-Mikel

UR MIA ELKARTEA

Ur Miako txapelketa, final laurdenetan da. Kanporaketa honetako partidak, iganderako jokatu beharko dira. Partidak:

ARALAR TABERNA

Gaur gauean kanporaketa berezia jokatu da. Une honetan 66 bikote gelditzen dira, baina kopuru hau ez da orekatua. Kanporaketek finalerarte oreka mantentzeko, 64 da kopuru egokiena (64 bikote, gero 32, 16, 8, 4 eta 2). Hau dela eta, gaur 4 bikote jokatu beharko dute. Hoietatik bi aurrera joango dira eta beste bi kalean geldituko. Gaur jokatu diren partidak:

*Olarra-Pello / Goñi-Antonio
Otaño-Mikel / Mati-Manu.□*

HAIKALDIA OIARTZUNEN

Sarrerak salgai Bodegan, Haidan eta Garinen

■ Datorren ostirala eta larunbatean izango da Haika gazte erakundeak antolatutako festa.

OSTIRALEAN 19:30ak aldera hasiko da festa Oiartzunen. 20:30etan kontzertua izango da *Anestesia, La Polla, Tonino Carotone, Potato, Txapelpunk* eta *Eskalariekin*.

Larunbatean 14:00ak aldera irekiko dituzte ateak. 17:30etan sagardotegi erraldoia *Tapia eta*

Leturiarekin, 19:30etan ekitaldi politikoa eta 20:30etan kontzertua: *SA, RIP, SEN, Kashbad, Berri Txarrak, KOP* eta *Etzakit*.

Sarrerak: Ostiraleko 1.700 pta; larunbatekoa 2.000 pta eta bi egunetarako bonoa 3.000 pta. Bertan ere izango dira salgai. □

HERIOTZAK

Valentin Telleria Arregi
(Carmen Otamendiren alarguna)
Astelehenean hil zen 87 urte zituela

IRRATIAK

(**F.M. 99.2**) **11:40etan**: Gontzal Agote, sortu berri den *Nabarra* aldizkariari buruz hitz egingo du. **12:00etan**: Pepe kazetariak aste honetako antzerki gomendioa egingo du. **12:30etan**: Rakek Gonzalez Udalen liburutegiko arduraduna liburutegiko berrikuntzei buruz arituko da.

ZERBITZUAK

☎ TELEFONOAK

►Taxiak: 943 550093
►Udaltzaingoa: 943 333288
►DYA: 943 464622
►Autobusak: 943 556662
►Anbulatorioa: 943 557750
►Jokalariei anonimoak 943 331103

☎ FARMAZIAK

►Egunez: Sagastiberri Urbieta, 7
☎ 943 552941
►Gauetz: Diaz Andoain, Nagusia 19
☎ 943 592057